



Abentura bidaietarako gida bereziak

Bartzelonako Granica argitaletxeak bilduma berri bat kaleratu du oraintsu: *Viajes de aventura*. Bilduma geografikoki banatutako sei liburu osatzen dute, eta gida bakoitzak egiaz bizitako 25 mentura azaltzen ditu. Guztira, beraz, 150 bidaia kronika, sei liburu kitan banatuta. Noiz joan, zer eraman, zer saihestu, helbideak, agentziak,


gidariak eta abar. Agentzia bati lotu barik, zeure kasa mugitzeko gomendio ugari eskaintzen dituzte liburuok.

Ramon Olasagasti

Zaila da gida on bat edo oso bat egitea, era guztietako turista, bidaiari eta menturazaleak daudelako: batzuk erosotasun eta lasaitasunaren zale dira, dena alde zurretik loturik daramatenak; beste batzuek erdizka antolatzen dute bidaia, eta beste zenbaitek menturaren eskuetan lagatzen dute dena. Lotarako lekuak, bate-tik besterako garraioak eta, oro har, herrialdean mugitzeko moduak ere bidaiari motaren arabe-

rakoak dira. Horregatik, zail da bidaiari guztiak aseko dituen gidarik egitea, guztientzat zerbitzua eskainiko duen gidarik idaztea. *Guide de Routard*-ak edo Lonely Planet etxeak argitaratzen dituenak bide dira helburu horretara gehien arrimatzen direnak, baina beti dago gabeziaren bat.

Bartzelonako Granica etxeak espresuki menturazaleei edo norbere kasa bidaiatzea maite dutenei zuzendutako bilduma kaleratu du. Sei gida dira guztira, eta gida horietako bakoitzak 25 mentura edo bidaia proposatzen ditu. Karta osoak, beraz, 150 plater. Beste hainbeste bidaiarik bizitako menturak eta esperientziak ageri dira gidetan, eta bidaia kronika gisa daude kontatuak. Hala ere, informazio praktikoak du garrantzia, ororen gainetik. Mapatxoak, osasun neurriak, nola planifikatu bidaia bakoitza... asko dira aholkuak.









VIAJES DE AVENTURA Argitaletxea: Granica **Prezioa:** 27,05 € **Egileak:** Fiona Dunlop, Carl Pendle, Jane Egginton, Steve Watkins, Ben Davies, Sam Hart, Jill Go-echer, Christopher Knowles, Simon Richmond, Philip Briggs, Ariadne Van Zandbergen, Paul Grogan, Guy Marks, Carrie Hampton, Richard Whitaker, Michael Woods, Chris McIntyre, William Gray, Lee Karen Stow, Matt Cawaad, Anna Carter, Veronika Meduna, Andy Reisinger, Rebeca Ford, Des Hannigan, Hugh Taylor.

India, Pakistan eta Himalaya

Bost herrialdetan bizitako abenturak kontatzen dira: India, Pakistan, Nepal, Tibet eta Sri Lanka. Indiako proposamenak dira ugariak: gamelu gainean safaria Jaisalmerren; Mughalen pausoei jarraiki; Jainkoen ibarrean jolasean; Daarjeeling inguruan tren bidaia; errinozeroak eta izurdeak Assam ibaian; bizitza eta heriotza Ganges ibaian; Orissango lur tribaletako ipuinak... Nepal, gonbit hauek egiten dituzte: Annapurnako santutegietako trekina; Katmandu ibarra eta Nagarkot hiriarren ingurua mendiko bizikletarekin; Teraiko enborren ibilbidea; Bhote Koshi ibaiaren jaitsiera; Lo erreinuan zaldiz. Tibet bi dira jomugak: Lhasako hiri galazia eta Kailash mendi sakratua. Pakistan menturak: Nanga Parbateko erre-pidea; Hindu Kusherako bide luzea...

Hego Amerika

Venezuela, Ekuador, Peru, Brasil, Bolivia, Txile eta Argentinan egindako bidaiak kontatzen dira. Venezuelak asko du eskaintzeko: Tepuyak, Conan Doylen Mundu Galdia, Meridako mendiak, Los Llanos ingurua, Los Roques uhartedia... Ekuadorren, Otavallora, baso euritsura eta Galapagoetara garamatzate. Perun, Inken bidea, Nazca inguruko sekretuak edo Titicaca aintziraren edertasunak erakusten dituzte. Brasilen hiru dira jomugak: Amazonia, Iguazu eta sabana. Txileko bidaiak hauexek: Ilargiaren ibarra; Villarrica sumendia; Paineke Dorreak. Boliviako mendietan eta goi lautadan



barna bi bidaia proposatzen dituzte. Argentinan, azkenik, Mendozan raftinga egitera edo Argentina tropikalean dinosauroen pausoei jarraitzera garamatzate.

Erdialdeko Amerika

Kultura eta natura eskutik, altxor ugari eskaintzen dizkio Erdialdeko Amerikak bidaiariari. Mexikoko basamortuan hasten da gida, eta herrialde bereko Oaxacako auriak eta Veracruz ibai zeharkatu ondoren, Guatemalan jarraitzen du, bertako sumendi eta maia kulturaren aztarnetan. Belizeko urpeko mundua, edo maia kulturaren lilura, Hondurasko oi-hana, Altxorraren uhartea eta maien antzinako Copan hiria... jomuga erakargarriak guztiak. Nikaraguako basoak eta sumendiak edo historiak blaitutako San Juan ibai ere ez dira leku txarrak. Costa Rican, Tortuguero Parke Nazionala eta oi-hana deskribatzen dituzte. Panaman, azkenik, bi ozeanoek bat egiten duten ingurunea ezagutarazten du gidak.

Australia eta Zeelanda Berria

Edozein bidaiariren hortzak zorrotz-tuko lituzkeen proposamenak jasotzen dira

Australia eta Zeelanda Berriko liburu-kian. Australia mendebaldeko lurralde bakartiak edo Kimberly basatia. Iparraldean, aborigenen ametsezko lurraldeak; Uluru edo Ayers Rock ingurunea; Flinder mendikatea... Queenslanden, outbacka esploratzera, koralezko harresian urpekaritza egitera edo tropikoetan safaria egitera gonbidatzen gaitu. Hegoaldeko Nueva Gales eta Victorian bidaia hauek azaltzen ditu: bizikletan naufragioen kostaldetik; zaldiz Snowy Mountains inguruan... Tasmanian hego-mendebalde edo Overland Track bidea deskribatzen ditu. Zeelanda Berrian, azkenik, hauexek: lurpeko kobazuloak; kayakean Uharteetan Badian; Maorien antzinako bideetan zaldiz...

Afrika Hegoalde

Afrika hegoaldeko herrietara joatea iraganera bidaiatzearen pareko da, non natura bere indar osoan agertzen den. Uganda, Kenia, Tanzania, Zimbawe, Zambia, Malawi, Hegoafrika, Madagaskar, Mozambike, Namibia... Guztietan egin daitezke safariak, zaldi bidaiak, raftingak... Oso gutxi bisitatutako lekuetarako gonbita ere egiten dute, hala nola

Giza-hezurren kostaldetara, Espezieen uhartera edo Bunyony lakura. Beste leku batzuk ezagunagoak dira: Niloko iturburua, Serengeti ingurunea, Okavangoko delta edo Kilimanjaro ingurua.

Asia hego-ekialdea

Asia hego-ekialdeko abenturak idatzi dituzten bidaiariek txalupetan, trenbide zaharretan, jeep-ean, mendiko bizikletan, motorretan eta beste hainbat ibilgailutan ezagutu dituzte munduko paraje haiek. Thailandia, Vietnam, Kanputxea, Laos, Malaysia, Sumatra, Java, Borneo, Sulawesi, Filipinak... herrialde hauetan guztietan bizitako esperientziak azaltzen eta leku ederrak ezagutarazten dituzte egileek. Thailandia iparraldeko tribuak bisitatu, Phan Nga ibai kayakean jaitsi, Phuket urpekaritza egin, asko dira Thailandiako aukerak. Vietnam, Laos eta Kanputxeak ere natura oparoa eskaintzen diote bidaiariari: Long Bay badian nabigatzen, Nam Ou ibaian bidaia, Mekong txalupan, Boloven mesetaren esplorazioa... Malaysian, besteak beste, oi-hanean barnatzen da trenbidea; Sumatran, Dog ibaiko ur lasterrak jaisteko proposamena egiten dute.